PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, HONAKO OBRA HONEN AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO: URTETAKO HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN (HEA) HONDAKINDEGIA ZIGILATZEA III. FASEA: II. ETA III. GELAXKAK BEHIN BETIKO ZIGILATZEA EGITASMOA IDAZTEKO, ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA GAUZATZEKO, INGURUMENA ZAINTZEKO ETA GEOISINTETIKOEN INSTALAZIOAREN KALITATEA KONTROLATU ETA BERMATZEKO.

1. AGIRI HONEN OBJEKTU OROKORRA

Agiri honen objektua da Urola Kostako Udal Elkartearentzat Urteta hondakin ez arriskutsuen zabortegia zigilatzeko III. fasea: II. eta III. gelaxkak behin betiko zigilatzea egitasmoa idazteko, zuzendaritza fakultatiboa gauzatzeko, ingurumena zaintzeko eta geosintetikoen instalazioaren kalitatea kontrolatu eta bermatzeko aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzuaren baldintza teknikoak zehaztea.

Laburbilduta, kontratua egikaritzeko aintzat hartuko dira honako dokumentu8 hauetan jasotako baldintzak:

- Preskripzio teknikoen agiri hau.
- Administrazio-klausulen agiria.
- Karatula.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko Sailburuordearen 2015eko ekainaren 8ko Ebazpena, Urola Kostako Udal Elkartearen Urteta hondakin ez arriskutsuen zabortegiaren (Zarautz udalerria) jardueraren Ingurumen Baimen Integratua aldatu eta indarrean jartzen duena. Ebazpen horrek kontratu izaera izango du.
- 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta ezabatzeari buruzkoa.
- Eusko Jaurlaritzaren 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.
- Eusko Jaurlaritzaren 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena.
- Egitasmoak zabortegien araudi espezifikoarekin zerikusirik ez duten baina egitasmoa osorik eta behar bezala garatzeko aplikagarriak diren beste ingurumen-eskakizun batzuei ere erantzungo die.

Gainera, aintzat hartuko dira honako alderdi hauek:

- Lanen jarraipena eta koordinazioa, egikaritze-egitasmoaren azken konponbidera iritsi arte.
- Obraren ezaugarri orokorrak zehatz-mehatz definitzea, konponbide zehatzak hartuz eta justifikatuz, Udal Elkartearen beharrak eta jarraibideak kontuan hartuta, eta kontuan hartuta obra eta zabortegiaren jarduera aldi berean egiten direla. Horri dagokionez, Udal Elkartearen gidalerroei jarraiki egikaritzeko fase bakoitzean bi jarduerak koordinatzeko plan bat egingo da, honako premisa honekin: zabortegiaren ohiko jarduerak (hondakinak sailkatzeko instalazioa, mantentze-lanak eta datuak hartzea) martxan jarraitu behar du uneoro, erabiltzaileei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea murriztu gabe eta dauden jarduerei larriki eragin gabe.
- Obraren fase bakoitzean, esleipendunak honako hauek zehaztuko ditu: makinak igarotzeko bideak, horien kokapena, pilaketak, obRaren zerbitzu osagarriak eta zehaztu beharreko beste edozein alderdi, bai eta horiek zabortegiko jarduerekin duten lotura ere, deskribatutako premisak beteta.
- Udal Elkarteak emandako informazioa aztertzea eta ondorioak ateratzea.
- Lekuan bertan egin beharreko azterketak. Bisitak zabortegira.
- Udal Elkarteak kontratua behar bezala garatzeko deitzen dituen lan-bileretara joatea.
- Lurren eta hondakinen mugimendua zehaztea, egonkortasun geoteknikoko baldintzak kontuan hartuta.
- Laguntza teknikoko kontratuaren barruan sartzen da egitasmoetan edo bestelako dokumentu teknikoetan beharrezkoak diren aldaketak egitea. Aldaketa horiek izan litezke Udal Elkartearen jarraibideen ondorio edo beste administrazio batzuen aurrean lizentziak edo baimenak izapidetzearen ondorio.

- Udal Elkarteak desgasifikazioaren azterlan bat erantsiko du, Urteta zabortegia behin betiko zigilatzeko. Azterlan hori desgasifikazioan espezializatuta dagoen eta Urteta zabortegian esperientzia handia duen enpresa batek idatziko du, eta egitasmoaren idazleak kontuan hartu beharko ditu haren gomendioak.

- Egitasmoa idaztea:
  - Dauden zigilatze-aukerak aztertzea eta Udal Elkarteari aholkularitza ematea.
  - Eraikuntza-materialak eta -irtenbideak definitzea, horietako bakoitzaren adierazpen grafiko zehatz eta oparoarekin.
  - Egikaritze-egitasmoan beharrezkoak diren dokumentu guztiak idaztea: hondakinak kudeatzeko plana, iragazgaiztearen kalitatea kontrolatzeko plana (geosintetikoak), ingurumen zaintzarako plana, indusketa-plana, etab.
  - Obra amaitu ondoren, zabortegiaren azalera osoaren (frontea eta I., II., III. eta IV. gelaxkak) egonkortasun-azterlan bat ere sartuko da. Kanpoko laguntza teknikoa jaso ahal izango da horretarako.
  - Zabortegian, III. gelaxkaren goiko aldean dagoen CCTVko kamera eta bulegoa nola lotu aztertuko da.
  - Obraren kostu ekonomikoaren kalkulua eta definizio xehatua.
  - Egitasmoa ikus-onestea.

- Obraren zuzendaritza fakultatiboa:
  - Udal Elkarteari aholkularitza ematea obraren lizitazioan.Plangintzaren jarraipena.
  - Aurrekontuaren jarraipena egitea.
  - Egikaritzearen kalitatearen kontrolaren jarraipena .
  - Harremanak beste batzuekin.
  - Obraren amaierako egoerari buruzko dokumentazioa.

- Ingurumen zaintza, obra egiten den bitartean:
  - Ingurumen zaintzarako plana.
  - Aholkularitza aditua ingurumen arloan, obra egiten den bitartean nahiz berme epean.
  - Txostenak egitea, babesteko eta zuzentzeko neurriei buruz.

- Geosintetikoen instalazioaren kalitatearen kontrola eta bermea:
  - Iragazgaiztu behar den azaleraren hasierako kontrola.
  - Material geosintetikoak jartzeko lanak egiten direnean obran bertan egon.
  - Iragazgaiztutako azaleraren amaierako kontrola.

2. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren objektua da laguntza teknikoko zerbitzua eskaintzea Urola Kostako Udal Elkarteari, honako lan hauetarako:

- LAGUNTZA MOTA:
  - Egitasmoa idaztea
  - Obraren zuzendaritza fakultatiboa
  - Ingurumen zaintza obrak dirauen bitartean
  - Geosintetikoen instalazioaren kalitatearen kontrola eta bermea:

- OBRA MOTA:
  Urteta hondakin ez arriskutsuen zabortegia zigilatzeko III. fasea: II. eta III. gelaxkak behin betiko zigilatzea

- OBRAREN GUTXI GORABEHERAKO AURREKONTUA
  2.463.719,06 euro (BEZik gabe). Guztira, 2.981.100,07 euro (BEZa barne).

3. AURREKARIAK

2014ko abenduaren 31n zabortegiaren ustiapena itxi zen, eta ixteko prozesurako beharrezko izapideei eta jarduketei ekin zitzaien. Prozesu horren barruan, Udal Elkarteak honako fase hauek aurreikusi zituen:

- I. fasea: Ezponda behin betiko zigilatzea eta II. gelaxkaren zati bat zigilatzea (2014an amaitu zen).
- II. fasea: I. eta IV. gelaxken oinarriak behin betiko zigilatzea eta III. gelaxka behin-behinean zigilatzea (2016an amaitu zen).
- III. fasea: II. eta III. gelaxkak behin betiko zigilatzea (2022rako aurreikusi da).

Kontratu honen objektua da III. fasearen (Urteta zabortegiko II. eta III. gelaxkak behin betiko zigilatzea) egitasmoa idaztea, zuzendaritza fakultatiboa gauzatzea, ingurumena zaintzea eta geosintetikoen instalazioaren kalitatea kontrolatu eta bermatzea.

4. LANAK EGITEKO LEKUA

Zigilatze-lanak Zarautz udalerrian dagoen Urteta hondakin ez arriskutsuen zabortegian egingo dira.

5. LAGUNTZA TEKNIKOAREN LANBIDE ESKAKIZUNAK, EGINKIZUNAK ETA ESKUMENAK

Kontratistak laguntza teknikoko zerbitzua eskainiko du egokiak diren lantalde eta baliabideekin.

Laguntza teknikoak, gainera, obra egin bitartean, kontuan hartuko ditu egitasmoaren preskripzio tekniko orokorren agirian eta preskripzio tekniko partikularren agirian ezarritako arauak, zabortegiaren ingurumen baimen integratua, eta lanetan segurtasun eta osasunari buruzko araubidea.

Laguntza teknikoko zerbitzuak honako hauek ere bete behar ditu: Urteta hondakin ez arriskutsuen zabortegia zigilatzeko III. fasea: II. eta III. gelaxkak behin betiko zigilatzea egitasmoa zuzenean nahiz zeharka arautzen dituen Europako, estatuko nahiz autonomia erkidegoko araubideak jarritako helburuak. Kontratistak kontratuari aplikagarri zaion araubidea ez ezagutzeak ez du araubide hori betetzeko erantzukizunetik salbuetsiko.

Egitasmoa idaztean, esleipendunak kontuan hartu beharko ditu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako hondakinen arloko teknikariek gaiari buruz ematen dituzten interpretazio-gidalerroak. Teknikariekin koordinazio estua izango da uneoro, Udal Elkartearen bidez, xehetasun-egitasmoa gidalerro horien araberakoa izan dadin eta ondoren izapidetu eta onartu ahal izan dadin.

Erabakitzen diren irtenbideak esleipendunak defendatuko ditu, Udal Elkartearekin batera, dagokion organo eskumendunaren aurrean.

Koordinazio horrek barne hartuko ditu mota guztietako kontsultak eta behar diren bisita eta lan-bilera guztiak. Egitasmoa amaitutzat joko da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako hondakin-arloko teknikariek onartzen dutenean eta Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek oniritzia ematen dutenean, egitasmoa teknikoki onartuta.

Obra-zuzendariak honako lanak egingo ditu: obraren zuzendari fakultatiboaren eginkizunak; kontratistaren jarduera zuzendu, kontrolatu eta ikuskatu, egiten diren lanek Administrazioaren interesak ahalik eta ondoen bete ditzaten.

Obra-zuzendaria, zuzendari fakultatiboa denez, bere eginkizunak burutzen ari dela hartzen dituen erabakien eta egiten ez dituenen erantzule izango da.

Ingurumeneko sailburuordearen **2015eko ekainaren 8ko Ebazpenaren D.1.7** apartatuaren arabera (ebazpen horren bidez, hondakin ez arriskutsuen zabortegi-jarduerarako ingurumen-baimena aldatu eta eraginkor egiten da, eta Zarautz udalerrian (Gipuzkoa) Urola Kostako Udal Elkarteari eman zitzaion), obra-zuzendariak ingurumen arloko gaietan (babes neurrietan eta neurri zuzentzaileetan oro har) aditua den aholkularitza izan beharko du, obra amaitzen den bitartean nahiz berme epean. Baldintzen agirien arabera obra-zuzendariak arlo horretan hartu behar dituen erabakiak hartuko ditu aholkularitza aditu horren txostena aldez aurretik aztertuta.

Aurreko atalean aipatutako ingurumen aholkularitzaren eginkizuna ez da izango obra egin bitartean nahiz berme epean egin beharreko kontrolen laginak hartu eta aztertzea (urei, lixibiatuei, zaratari eta gainerakoei buruz). Aholkularitzaren eginkizuna izango da beste erakundeek egindako neurketen emaitzak aztertu eta interpretatzea eta dagozkion txostenak egin eta ondorioak atera, jarraibideak eman eta proposamenak egitea.

Horrez gain, ingurumen aholkularitzaren eginkizuna izango da egiaztatzea obran parte hartzen duten gainerakoek betetzen dituztela gorago aipatutako ebazpenean ezarritako gainerako betekizunak.

Halaber, ingurumen aholkularitzak txosten bereziak egin beharko ditu ingurumenari aurreikusi gabeko eta ondorio kaltegarriko inpakturen bat egin dakiokeela atzematen bada, eta saihesteko edo zuzentzeko ekintzaren bat burutu behar bada (txosten horrek behar den informazio guztia bilduko du eta jardunbideak zehaztuko ditu). Horrez gain, txosten bereziak egin ahal izango dira obraren alderdiren batek aurreikusi baino ondorio nabariagoak edo onartezinak sortarazten baditu.

Kontratistak, lantalde eta baliabide egokien bidez, kontrolatu eta bermatu egin behareko du geosintetikoen instalazioaren kalitatea. Aholkulariak, gainera, kontuan hartuko ditu egitasmoaren preskripzio teknikoen agirian eta preskripzio tekniko partikularren agirian ezarritako arauak, zabortegiaren ingurumen baimen integratua (2015eko ekainaren 8koa) eta geosintetikoen instalazioari buruzko araubidea. QAC zerbitzuak honako hauek ere bete behar ditu: Urteta hondakin ez arriskutsuen zabortegia zigilatzeko III. fasea: II. eta III. gelaxkak behin betiko zigilatzea egitasmoa zuzenean nahiz zeharka arautzen dituen Europako, estatuko nahiz autonomia erkidegoko araubideak jarritako helburuak

QAC zerbitzuaren ardura izango da entsegu suntsitzaileak eta ez suntsitzaileak egitea. Obran bertan edukiko ditu geosintetikoak instalatzeko epealdia osoan (%100) instalatzeko lanak egiteko behar diren baliabide teknikoak. Beraz, egiaztatu egin beharko da baliabide tekniko eta materialen jabetza (husteko kanpaina, tentsiometroa, orratz manometrikoak eta punpak presio-entseguetarako, berogailuak, mikrometroa, kalibrea...).

Enpresa esleipendunaren betebeharra da kontratuaren objektuarekin zerikusia duten eta kontratuaren haritik ezagutu ditzakeen publikoak edo agerikoak ez diren datu eta aurrekariak isilpekotasunez zaintzea. Beraz, ezingo die beste batzuei kontratuaren objektu eta gaiei buruzko informaziorik eman, ez eta obra-eremura sartzen utzi ere helburu horrekin, betiere Administrazioaren berariazko baimenik ez badute.

6. LEHIAKETA HONEN ZUZENDARITZA TEKNIKOA, EGINKIZUNAK ETA ESKUMENAK

Kontratu honen garapen teknikoaren zuzendaritza Urola Kostako Udal Elkarteari dagokio. Beraz, laguntza teknikoak Udal Elkarteko lehendakariarengana edo horrek izendatutako teknikariengana jo behar du, horiek baitira Administrazioaren solaskide.

Laguntza teknikoa eman bitartean, esleipendunak aldez aurretik kontsultatuko dio Administrazioari kontratua osatzen duten agirietako kalitate baldintzak, epeak edo prezioak aldatzeko erabakiak hartu aurretik.

Administrazioa izango da, laguntza teknikoaren irizpideen aurka, idatziz eman eta betearazten dituen erabakien erantzule. Horrek ez du esan nahi horrelako erabakirik ezin duenik hartu. Horrelako erabaki bat hartzen baldin badu obra-zuzendaritzak onartu beharko du. Hala ere, obra-zuzendaritzak idatziz jasota utzi ahal izango du erabaki horretan bestelako irizpideak dituela, etorkizunean izan daitezkeen erantzukizunak argi gelditzeko.

Administrazioak eta, bereziki, zuzendaritza teknikoak interpretatu eta betearaziko ditu preskripzio teknikoen agiri honetako baldintzak, une oroz sartu ahal izango da obrara bisita egin eta ikuskatzera eta egoki iritzitako bestelako pertsonei dei egingo die ikuskatzeetan parte hartzeko.

Administrazioaren eginkizun eta eskumenak indarrean dagoen araubidean daude jasota, eta legearen arabera burutuko dira.

7. EGITASMOA IDAZTEKO LANEN EDUKIA ETA IRISMEN OROKORRA

Egitasmoa idazteko lanen edukia eta irismena behar bezain zehatza izango da, obra bera egitasmoaren edukitik abiatuta zuzenean egin ahal izateko eta prezio eta neurketa itxien bidez kontratatu ahal izateko. Hortaz, eraikuntza-xehetasunak dituen egitasmoa izango da.

Egitasmoak, gutxienez, honako hauek jasoko ditu: memoria bat, ase beharreko beharrak eta kontuan hartu beharreko faktore guztiak jasoko dituena; obra behar bezala definituta gera dadin beharrezkoak diren planoak, multzo- eta xehetasun-planoak; preskripzio tekniko partikularren agiria, non obraren deskribapena egin eta haren egikaritzea arautuko den; hainbat partzialez osatutako aurrekontua, eta unitateko prezioak eta deskonposatuak, neurketen egoera eta balorazioa egiteko behar diren xehetasunak adierazita; aurrekontu orokorra; lanak denboran eta kosturik onenean garatzeko programa bat, eta legezko edo erregelamenduzko arauetan aurreikusten den dokumentu oro.

Zabortegiaren azalera osoaren (frontea eta I., II., III. eta IV. gelaxkak) egonkortasun-azterlan bat ere sartuko da, obra egin ondoren.

Ezinbestekoa izango da justifikazio-kalkulu guztiak sartzea, materialak aukeratzeko eta egitasmoko elementu guztiak diseinatzeko: arekak, ur-drainatzeak, desgasifikazio-elementuak, etab.

Egitasmoak II. eta III. gelaxkak behin betiko zigilatzeko eduki teknikoa garatuko du, eta, gutxienez, honako jarduera hauek zehaztuko ditu:

II. eta III. gelaxkak (32.700m2-ko azalera gutxi gorabehera):

- Dauden maldak berriz perfilatzeko lanak.
- Behin betiko forma emateko lanak, isuritako materialen eta zigilatutako eremuen egonkortasuna bermatuko dutenak, urak era egokian erauzi ahal izateko, zabortegiaren AAI/IBIko premisen arabera. Beraz, egonkortasunari buruzko justifikazio-kalkuluak egingo dira, aplikatuko den segurtasun faktorea adierazita.
- Azalera behin betiko zigilatzeko lanak.
- Azaleko urak biltzeko sistema.
- Lixibiatuak biltzeko sistema.
- Gasa erauzteko sistema: putzuak, tximiniak, hodiak, deskarga-galdaratxoak eta gainerako elementuak zigilatze-lanetara egokitzea.

Bestalde, xehetasun-egitasmoak honako dokumentu hauek izango ditu:

- Memoria eta eranskinak.
- Aurrekontua.
- Planoak.
- Baldintzen agiriak.
- Segurtasun- eta osasun-azterlana.

Aurreko horien osagarri gisa, honako dokumentuak idatziko dira, eraikitzeko egitasmoari eransteko:

- Kalitatea kontrolatzeko plan orokorra.
- Iragazgaiztearen kalitatea (geosintetikoak) kontrolatzeko plana.
- Segurtasun- eta osasun-azterlana.
- Ingurumen zaintzarako plana.

- Indusketarako plana
- Hondakinak kudeatzeko plana
- Zabortegiko azalera osoaren egonkortasun-azterlana.

Nolanahi ere den, obrako irtenbideak diseinatzeko une bakoitzean “eskura dauden teknologiarik onenak” hartuko dira kontuan. Horrekin batera, jarduera bakoitzak inpaktua murrizteko neurri zuzentzaileak izango ditu (beharrezkoa baldin bada).

Egitasmoari Udal Elkarteak emandako hainbat dokumentu berrikusi ondoren ekingo zaio. Besteak beste:

- Zabortegiaren egungo topografia-planoa (2020ko ekaina).
- Zabortegia zigilatzeko I. fasearen as built-a (2014).
- Zabortegia zigilatzeko II. fasearen as built-a (2016).

Lortutako emaitzetatik abiatuta, egitasmoaren aukerak aztertuko dira. Aukerak baloratu ondoren, Udal Elkarteak eta ingurumen-organoak onartutako egitasmo-konponbidea garatuko da, eta bateragarria izan beharko du egungo azpiegitura, zigilatze eta desgasifikazioekin.

7.1 Memoria

Memorian honakoak adieraziko dira: obraren deskribapen orokorra, hautatutako jarduera eta irtenbideak, kontuan hartutako faktoreak. Halaber, memoria egitasmo osatzen duten dokumentu guztien gida eta erreferentzia izango da.

Dokumentu hori **euskaraz zein gaztelaniaz** aurkeztuko da.

Xehetasun-egitasmoa garatze duen dokumentu-sortaren ardatza izango da. Honako atalak izango ditu, gutxienez:

- Egitasmoaren aurrekarien eta objektuaren deskribapena.
- Aplikatu behar den araubidea.
- AAI/IBIan ezarrita dauden eta aplikagarri zaizkion atalen betetzea.
- Egitasmoaren abiapuntu eta oinarrien azterketa.
- Egitasmoaren fase edo jarduera bakoitzaren deskribapen orokorra.
- Egitasmoko fase edo jarduera bakoitzaren deskribapen zehatza.
- Lanen kronograma: kronogramak aukera emango du jarduera bakoitzaren iraupena zehazteko (ezartzen den errendimendua aplikatuta).
- Material eta elementuen justifikazio-kalkuluak.

Jarraian datoz garatu behar diren atalak:

7.1.1 Obra egiteko era:

Lanei ekin aurretik obra egingo den lekuan burutu behar diren jarduerak deskribatuko dira atal honetan. Lan horien helburua da obraren eremua behar diren instalazio eta azpiegituretara egokitzea, AAI/IBIren eskakizunen arabera. Honako alderdi hauei arreta berezia eskainiko zaie:

- Obraren eremua hesitu eta seinaleak jartzea.
- Instalazio osagarriak (bulegoak, aldagelak...).
- Eremuko belar-sastrakak garbitzea.
- Material eta hornigaiak biltzeko eremuak zehaztea.
- Zabortegira eta obra-eremura sartzeko bideak zehaztea.

7.1.2 Amaierako forma:

II. eta III. gelaxken amaierako forma aztertuko da, honako helburu hauek betetzeko:

- Ahalik eta hondakin gutxien mugitzea.
- Amaierako formak bermatu egin behar du isurketa eremuko urak behar bezala drainatuko direla eta, ahal dela, maldak aldatzen diren eremuen buruetan ez dela urik agertuko. AAI/IBIan eskatutakoa hartuko da aintzat.
- Behin betiko formaren egonkortasuna aztertuko da, hondakinen masaren ikuspegitik eta gaineko zigilatzeko kaparen ikuspegitik. AAI/IBIan eskatutakoa hartuko da aintzat.
- Amaierako azalera inguru hurbilarekin bat eginda geratuko da.
- Justifikazio-kalkuluak sartuko dira.

7.1.3 Azaleko urak drainatzeko sistema:

Nolanahi ere den, kasu guztietan dimentsioak, obra behar bezala garatzeko behar diren materialak, eraikuntza-ezaugarriak eta materialak jartzeko irizpideak zehaztuko dira.

Halaber, drainatzeko sistema guztiak planoetan zehaztasunez adieraziko dira (oin-planoak, sekzio-planoak, luzetarako profilak eta eraikuntza-xehetasunak), behar bezala zuinkatu eta eraiki ahal izateko.

Elementu guztiak diseinatzeko egindako justifikazio-kalkuluak sartuko dira: kalkulu hidrometeorologikoak, hidraulikoak, etab.

7.1.4 Lixibiatuak drainatzeko sistema:

Nolanahi ere den, kasu guztietan dimentsioak, obra behar bezala garatzeko behar diren materialak, eraikuntza-ezaugarriak eta materialak jartzeko irizpideak zehaztuko dira.

Halaber, lixibatuak drainatzeko sistema guztiak planoetan zehaztasunez adieraziko dira (oin-planoak, sekzio-planoak, luzetarako profilak eta eraikuntza-xehetasunak), behar bezala zuinkatu eta eraiki ahal izateko. Drainatze mota horretan ez da geotestilik jarriko, lixibatuarekin lohiz betetzen baita. Gainera, aurreikusitako legarrak ofitikoa izan behar du.

Elementu guztiak diseinatzeko egindako justifikazio-kalkuluak sartuko dira: drainen dimentsioak eta maldak, materialak, etab.

7.1.5 Desgasifikazio-sarea:

Egitasmoak orain martxan dagoen sarea berraztertuko du eta zabortegi osoaren desgasifikazioa egin ahal izateko unitate eta osagaiak zehaztuko ditu; garrantzi handiagoa emango zaio II. eta III. gelaxken desgasifikazioari. Halaber, beharrezkoak diren xehetasunak zehaztuko dira: zigilatzearen eta desgasifikazio-putzu eta -tximinien arteko lotura, lehendik dauden hodien aldaketa, ERM berriak, kolektoreen kokapena, eraikuntza-xehetasunak, bide-azpiko pasabideen diseinua, desgasifikazio-putzuen diseinua eta kalkulua, etab.

Egitasmoan, zuziaren funtzionamendua bermatzeko eta hodien barruan kondentsatuak ezabatzeko beharrezkoak diren neurriak jasoko dira.

Neurriak aztertuko dira biogasaren errekuntza-zentrala martxan egon dadin obrak irauten duen bitartean.

Elementu guztiak diseinatzeko egindako justifikazio-kalkuluak sartuko dira.

Udal Elkarteak desgasifikazio-azterlan bat erantsiko du, Urteta zabortegia behin betiko zigilatzeko. Azterlan hori desgasifikazioan espezializatuta dagoen eta Urteta zabortegian esperientzia handia duen enpresa batek idatziko du, eta egitasmoaren idazleak kontuan hartu beharko ditu haren gomendioak. Zigilatzeko egitasmoa idaztean, enpresa horrek desgasifikazioaren kapitulua egiaztatuko du.

7.1.6 Paisaia berreskuratzea eta ingurumen aldetik bere onera ekartzea (II. eta III. gelaxkak):

Egitasmoak honako atalak izango ditu, gutxienez:

- Oinarrizko zorua jartzeko landare-lurra jarri eta zabaltzea.
- Landare-espezieak landatzea eta ereitea.
- Eremu hori aldian behin zaintzeko lanak.
- Zabortegiko espezie inbaditzaileen kontrola eta horiek saihesteko prebentzio-neurriak.

7.1.7 Zabortegiaren egonkortasun-azterlana:

Urteta zabortegiaren egonkortasunari buruzko justifikazio-dokumentu bat idatziko da eta honako hauek jasoko ditu:

- Huts egiteko aukera
- Konfiantza-indizea
- Segurtasun-faktore ertaina

Lan horiek baliabide informatikoen bidez egingo dira, eskuragarri dauden profil kaltegarrienen topografiatik abiatuta. Datu horiek aplikazio informatiko batean sartuko dira, eta egonkortasunaren ohiko probabilitate-kalkulua lortuko da. Azkenik, emaitzen buruzko txostena egingo da.

Irristadura zirkularraren bidezko egonkortasuna kalkulatzeko hiru metodo erabiliko dira (Bishop, Morgenstern-Price eta Spencer). Horrez gain, zirkularra ez den hausturetarako egonkortasuna kalkulatuko da beste prozedura baten bidez (adibidez, Search Block), metodo berberetarako. Hori zabortegiko malda handieneko bi norabideetarako kalkulatuko da.

Azterlanerako egindako justifikazio-kalkuluak gehituko dira.

7.1.8 Beste batzuk:

Aurreko ataletan adierazitakoez gain, egitasmoan sartuko dira obra behar bezala egin ahal izateko bestelako alderdi eta jarduerak.

7.1.9 Eranskinak:

Eranskinetan adieraziko dira egitasmoan hautatutako irtenbideak justifikatzen dituzten kalkulu guztiak eta; kalkulu horiek beren isla izango dute planoetan. Era berean, egitasmoa idazteko egin behar izan diren kalkulu guztiak sartuko dira: hidraulikoak, egonkortasunari buruzkoak, ainguratzeko zangak, zigilatzeko materialak, etab.

Lanen iraupena ere, ekoizpenaren arabera kalkulatuta, adierazi beharko da.

7.2 Aurrekontua

Esleipendunak prezioen taula aurkeztuko du; taula hori egingo da merkatuko batez besteko prezioak eta memoria, plano eta eranskinetan (nahiz bestelako eraikuntza-xehetasunetan) zehazten den obraren definizioan oinarritutako neurketak kontuan hartuta. Taula horrek obra kontratatzea ahalbidetuko du.

Obraren zatien aurrekontuak eta exekuzio materialeko aurrekontuak ere egingo dira, gorago adierazitako prezioak zati bakoitzaren neurketei aplikatuta.

Halaber, kontrata bidez obra burutzeko aurrekontua ere aurkeztuko da. Aurrekontu horretan gastu orokorren, industria-irabaziaren eta BEZaren ehunekoak sartuko dira.

Hortaz, egitasmoaren aurrekontuak jarraibide hauen arabera egingo dira:

Obra-unitateen definizioa. Obra-unitate gisa agertuko dira aurrekontuan obraren prezioa osatzen duten osagai guzti-guztiak. Obra-unitateak kode bidez bereiztuko dira eta behar besteko xehetasunarekin deskribatuko dira, kalitateak, amaierako emaitza eta modeloak era objektiboan identifikatzeko moduan.

Neurketak: Obra-unitateen neurketak plano bidez atera ahal izango dira zuzenean. Unitate kopuruak zehazteko eragiketa eta kalkuluak adieraziko dira kalkuluen eranskinean.

Unitate prezioak: Obra-unitateek unitate prezio bat izango dute (prezioen 1 zenbakiko taula), kontratistaren salmenta prezioa, hain juxtu; halaber, prezioen 2 zenbakiko taulan (prezioak osagaietan banatuta) unitate prezio bakoitza xehatuta adieraziko da (garraioa, hornitzea, esku-lana eta abar).

Aurrekontua xehatuta: Aurrekontuko kapitulu eta partida bakoitzak bere batura izango du. Bestalde, aurrekontua xehatuko da honela: unitateak, zatien batura partzialak eta obra egitasmoaren aurrekontu osoa (batura guztira).

Aurrekontu orokorra: Obraren prezio osoa honela aterako da: unitate prezioaren eta unitate kopuruaren produktua, gastu orokorrak, industria irabazia eta BEZa gehituta.

7.3 Planoak

Egitasmoa planoekin osatuko da. Plano horiek obraren osagai guztiak eraikitzeko behar adina zehaztasun emango dute.

- Geografikoa
- Kokapena
- Jariatze-eremuak
- Egungo egoera (2020ko ekaina)
- Egitasmoaren takimetro orokorra
- I. eta IV gelaxken amaierako geometria
- Obraren eta profilen plano orokorra
- Behin betiko zigilatzearen sekuentzia eta xehetasun estandarrak
- Amaierako geometria
- Obraren eta profilen plano orokorra
- Azaleko uren drainatzea. Planoa
- Azaleko uren drainatzea. Luzetarako profilak, xehetasunak eta sekzio estandarrak.
- Desgasifikazio-sarearen planoa
- Putzuak, tximiniak eta dauden gainerako elementuak zigilatzearekin lotzea. Xehetasunak
- Zigilatzea eta arekak lotzea. Xehetasunak
- Lixibiatuen drainatzea. Planoa
- Lixibiatuen drainatzea. Kutxatilak eta xehetasunak
- Ingurumen zaintzarako programa Kontrol-puntuak
- Landareak landatu eta ingurumena berreskuratzeko plana
- Obra eta aldi baterako pilaketa-eremuak ezartzea (AAI/IBIaren arabera)

7.4 Baldintza orokorren eta preskripzio tekniko partikularren agiriak

Baldintza orokorren eta preskripzio teknikoen agiriak egingo dira.

Baldintza orokorren agiriek arautuko dituzte obra hornitu eta burutzeko kontratista, sustatzaile eta obra-zuzendaritzaren arteko kontratu baldintzak.

Preskripzio tekniko partikularren agiriak, berriz, honako hauek finkatuko dituzte behar adinako zehaztasunarekin: eskatzen den kalitatearen deskribapena, materialek bete behar dituzten baldintzak, obra burutzeko baldintzak, proba eta saiakuntzak, obra burutzeko era, neurketak egiteko era eta obra ordaintzeko era.

7.5 Kalitatea kontrolatzeko plan orokorra

Obraren kalitatea kontrolatzeko plan orokorra (KKPO) egitura eta dokumentu hauen bidez egingo da.

- Memoria. Kalitate plana zehatz-mehatz deskribatuko du eta, gutxienez, atal hauek garatuko ditu:
  - Behar diren proba eta azterketen zerrenda (kopurua, mota, maiztasuna, erreferentzia balioak eta erreferentziazko araubidea)
  - Enpresa esleipendunari ezarritako kalitatea egiaztatzeko eskatu behar zaizkion egiaztagirien zehaztapena.
  - Kalitatea kontrolatzeko prozeduren deskribapena. Planak honako osagai hauek izango ditu, gutxienez:
    - Obran materialak hartu eta onartzeko kontrol-prozedura.
    - Obran materialak jartzeko kontrol-prozedura.
    - Obra nola egiten den kontrolatzeko prozedura.
    - Dokumentuak kudeatzeko prozedura.
    - Obran parte hartzen duten aldeen arteko komunikazioa (emaitzei buruzkoa) bideratzeko prozedura.
    - Kalitate emaitzak eta azterketa estatistikoen emaitzak erregistratzeko prozedura.
    - Prozedura horiek burutzeko jarraibideak (probak, materialak hartzea, jartzea...) eta erregistro-ereduak eta bestelako formatuak.
- Planoak. Kartografia bidez adieraz daitezkeen KKPOeko partida guztien planoak egingo dira.
- Aurrekontua. Planaren aurrekontuak kalitatea egiaztatzeko entsegu edo proben unitate eta unitate prezioak adieraziko ditu, xehatuta.
- Preskripzio tekniko partikularren agiria. Agiri horietan honakoak definituko dira xehetasunez eta zalantzarik gabe: egin behar diren lanen irismena, lanak burutzeko era, materialak, ekipoak eta makinak, erantzukizunen banaketa zehatza, kalitatea kontrolatzen duten enpresei eskatu behar zaizkien kalitate-egiaztagiriak eta kontratatu behar diren zerbitzuen baldintzak eta ordaintzeko era.
- Eranskinak. Atal horretan zehaztuko dira kontratista orokorrak kalitatea kontrolatuko duen enpresaren esku jarri behar dituen ekipo, erreminta eta baliabideak.

7.6 Iragazgaiztearen kalitatea (geosintetikoak) kontrolatzeko plana

Geosintetikoen kalitatea kontrolatzeko plana kalitate orokorra kontrolatzeko planaren antzekoa izango da, baina zabortegiaren aurrealdeko ezponda iragazgaizteko erabiltzen diren material geosintetikoak soilik kontuan hartuta.

Atal horretan arreta berezia eskainiko zaio materialen kalitatea kontrolatzeari, produktuak egiteko erabilitako lehengaiei, obran materiala hartzeko uneari eta instalatzeko uneko kontrolari erreparatua.

Halaber, koordinazio-irizpideak eta inplikatutako eragile bakoitzak egin beharreko lanak zehaztuko ditu, hala nola, obra-zuzendaritza, geosintetikoen fabrikatzailea, geosintetikoen instalatzailea, obraren kontratista nagusia edo laborategia, eta, bereziki, geosintetikoen instalazioaren kalitatearen bermearen kontrolaz arduratzen den enpresari dagozkion lanak, enpresa horri dagozkion lanen aurrekontu banakatua barne. Udal Elkartearentzat oinarri izango da hura kontratatzeko.

Era berean, lanak egikaritzeaz arduratuko diren erakundeen arteko komunikazio-protokoloak zehaztuko dira.

7.7 Segurtasun- eta osasun-azterlana

Egitasmoarekin batera eta horrekin bat etorriz segurtasun- eta osasun-azterlana idatziko da, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuak, eraikuntzako obretako gutxieneko segurtasun eta osasun baldintzak ezartzen dituenak, ezarritakoaren argitara.

Segurtasun- eta osasun-azterlanak prebentziorako eta babesteko neurri teknikoak jasoko ditu, obra segurtasun eta osasun baldintzetan egin ahal izateko. Obran egiteko aurreikusitako jarduera guztiak agertuko dira, administrazio aldetik berariazko egitasmoa egitea, baloratutako memoria idaztea edo antzeko beste dokumenturen bat eskatzen dutenak barne.

Halaber, prebentzio neurri guztiak adieraziko dira (aldagela/komunen instalazioak, leherketak eragin ditzaketen balizko atmosferen murrizketa...), eta hartu behar diren prebentzio neurri zehatzak (pertsonentzat, taldeentzat nahiz makinentzat) eta jarraibideak finkatuko dira.

Arreta berezia eskainiko zaio zabortegietako arrisku zehatzen prebentzioari, hala nola, atmosfera leherkorrari eta arrisku biologikoei. Horrekin batera, kontuan hartuko dira bestelako jarduera eta pertsonei eragindako interferentziak.

Azterlanak 1627/1997 Errege Dekretuaren 5. artikuluan definitzen diren dokumentuak jasoko ditu gutxienez:

- Memoria deskriptiboa. Memorian deskribatuko dira sor litezkeen arriskuei aurre egiteko erabiliko diren prozedura, betebehar, debeku eta ekipo teknikoak eta baliabide osagarriak. Halaber, obra egiten hasi aurretik egin behar diren instalazioak (komunak, bulegoak...) deskribatuko dira. Obraren inguruko baldintzak kontuan hartuko dira (Urteta zabortegia), bereziki lan ekipoak erabiltzean sor litezkeen arriskuei doakienez.

- Memorian honakoak adieraziko dira: egitasmoan deskribatutako obra-unitateak; obra garatzeko unitateen hurrenkera kronologikoa; lantoki eta lan eremuen kokapena; ekidin daitezkeen eta ekidin ezin diren arriskuen identifikazioa; arriskuei aurre egiteko hartuko diren prebentzio neurriak, babesteko ekipoak eta jarraituko diren prozedurak.

- Planoak: planoetan beharrezko diren irudiak eta eskemak erabiliko dira memorian adierazitako prebentzio neurriak hobeto adierazi eta errazago ulertzeko, behar diren zehaztapen tekniko guztiekin. Kartografia bidez adieraz daitezkeen atalak plano bidez adieraziko dira.

- Zehaztutako lan segurtasun eta osasuneko unitate edo osagai guztien neurketak.

- Aurrekontua: Azterlanaren aurrekontua kapitulutan banatuko da. Alde batetik, adieraziko dira obraren iraupenari lotu gabeko kostuak eta, beste alde batetik, iraupenari lotutakoak. Bigarren horiekin hileko kostua zehaztuko da. Deskonposatutako prezioak ere aurkeztu beharko dira.

- Preskripzio tekniko partikularren agiria. Makina, erreminta, tresna eta norbera babesteko sistema eta ekipoen ezaugarriak, erabiltzeko era eta zaintzeko moduk finkatzen dituzten jarraibide eta arauak zehaztuko dira.

- Eranskinak. Arauak eta esku-liburuak zehaztuko ditu.

Horrez gain, segurtasun- eta osasun-azterlanean txertatuko dira etorkizunean egin litezkeen lanak egiteko beharrezko eta komenigarri diren aurreikuspen eta informazioak.

Obran egiten den edozein lan kontuan hartuko da eta egoki mugatu eta zehaztuta egongo dira langileen segurtasun eta osasunarentzat arrisku berezia dakarten lanak, lan horien eremuak eta dagozkien prebentzio neurri zehatzak.

7.8 Ingurumen zaintzarako plana

Ingurumena zaintzeko planak lanak kontrolatzeko prozedurak zehaztuko ditu (lanak egiten diren bitartean). Horren helburua da egiaztatzea ingurumena zaintzeko sistemak aurreikusi bezala funtzionatzen duela, zabortegiko baimenaren baldintzak betetzen direla eta obren eremua ingurumen irizpide egokietan dagoela.

Azterketak honako dokumentuak izango ditu:

- Memoria: Obrako jardueren zainketa gehitzeaz gain, neurri zuzentzaileak nola bete behar diren zehaztu behar da. Ingurumen zaintzarako programak gutxienez alderdi hauek garatuko ditu:
  - Egin beharreko kontrolak identifikatu: urak, lixibiatuak, topografia eta asentuak, airearen kalitatea, zaratak, lurzoruaren indusketa, etab.
  - Kontrolatzeko guneak identifikatu eta kokatu.
  - Kontrolerako ekipoen ezaugarrien deskribapena.
  - Kontrolatzeko lanen eta mantentze-lanen programa definitu, maiztasuna eta egin beharreko azterketak adierazita (kopurua, mota, maiztasuna, erreferentzia-balioak eta araubidea).
  - Enpresa esleipendunari ezarritako kalitatea egiaztatzeko eskatu behar zaizkion egiaztagirien zehaztapena.
  - Laginak egiteko prozedura: Prozedura eta metodologia deskribatuko da.
  - Prozedura analitikoak: Metodoak eta arauak.
- Planoak: Kontrolatzeko guneak eta kartografia bidez eman daitezkeen atalak planoen bidez adieraziko dira.
- Aurrekontua.
- Preskripzio tekniko partikularren agiria: Laginak egiteko metodologiari, baliabideei eta enpleguaren ezaugarriei dagokienez, bete behar diren jarraibide eta arauak zehaztuko dira.
- Eranskinak: Aurrez egindako dokumentazioa erantsiko da (eragiketa aurrekoa), halakorik balego.

7.9 Bilerako aktak

Egitasmoa idazten den bitartean, Laguntza Teknikoak aktan jaso beharko ditu lan-bileretan lantzen diren gai guztiak, eta bilera egin ondorengo 3 egun balioduneko epean bidali beharko ditu Udal Elkarteari.

Hilean gutxienez bilera bat egingo da.

7.10 Egitasmoaren aurkezpena

Behin betiko egitasmoa, behar bezala ikus-onetsia, Urola Kostako Udal Elkartearen egoitzan entregatuko da (Urdaneta bidea 6, Zarautz), kontratua formalizatzen denetik gehienez ere ZORTZI (8) hilabeteko epean.

Lanak aurkeztuko dira DIN-A4 formatuan, enkoadernatuta. Halaber, dokumentu grafikoak tolestuta aurkeztuko dira eta enkoadernatuta, baina enkoadernatzeko sistemak aukera eman behar du planoak atera eta kontsultatu ahal izateko, planoak kaltetu gabe. Egikaritze-egitasmoaren kopia bat (1) eta jatorrizko bat (1) entregatu beharko dira, guztiak dagokion elkargo profesionalaren oniritziarekin.

Horrez gain, esleipendunak dokumentu horiek guztiak PDF formatuan eta formatu irekian aurkeztu behar ditu (DOC, DWG eta PZH formatuetan), Word, AutoCAD eta Presto aplikazioekin erabili ahal izateko.

Egitasmoaren MEMORIAREN dokumentazioa euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu behar da.

Dokumentu horiek guztiak Urola Kostako Udal Elkartearen esku geratuko dira eta egoki irizten dion eran erabiliko ditu.

Egitasmoa prestatzen ari den aldian (Eusko Jaurlaritzako Hondakinen Zerbitzuko teknikariekin bilera egin aurretik) gutxienez ale inprimatu bat (1) entregatuko da (DIN A-4 formatuan), aztertu eta zuzentzeko.

Prezioan sartuta egongo dira aurkeztu behar diren dokumentu eta kopia guztiak egiteko gastu guztiak (enkoadernatu, repografiatu, itzuli eta abar), bai eta lanak egiteko behar den beste edozein gastu eta egitasmoari oniritzia emateko kostua ere.

Obrak dirauen bitartean testu bategin bat sortu behar bada, hori ere eskainitako prezioan sartuta egongo da.

8. ZUZENDARITZA FAKULTATIBOAREN LANEN IRISMENA

Obra-zuzendaritza fakultatiboaren zerbitzua zorrotz eta onartutako agirien arabera gauzatu beharko da.

Zuzendaritza fakultatiboak konpromisoa hartzen du eskumen hori ekipo eta baliabide pertsonal eta material egokiekin gauzatzeko, honako hauek beteta: arlo horretan indarrean dauden legezko eta/edo erregelamenduzko xedapenek ezarritako betebeharrak, PTA honetan jasotakoak, sinatzen den AKA, egitasmoa, zabortegiko AAI/IBI, baita esleipendunek beren proposamenean konprometitutakoak ere.

Kontratuan sartuta daude obra-zuzendariaren eta, halakorik balego, obraren fase desberdinetan esku hartzen duten teknikarien diru-sariak, bai eta lanak egiteko beharrezkoak diren joan-etorrien gastuak, bulegoko materiala eta kontratuaren objektu den obra-zuzendaritzak eragin dezakeen beste edozein gastu ere.

Agiri honen objektu diren lanen zuzendaritza eta jarraipena Urola Kostako Udal Elkarteak egingo du eta horretarako behar diren teknikariak izendatuko ditu.

8.1 Lanak hasi aurretik egin beharreko lanak

OBRA-ZUZENDARITZA FAKULTATIBOAK honako betebeharrak izango ditu:

- Udal Elkarteari laguntzea obra egiteko eskaintzen artean egokiena hautatzen; horretarako, kontratazio-mahaiak eskatzen dituen txosten teknikoak egingo ditu, organo horrek ezartzen dituen epeetan. Kontratu honen esleipendunak eta Urola Kostako Udal Elkarteari zerbitzu hori ematen laguntzen dioten enpresek ezin izango diete enpresa lizitatzaileei edo obren kontratista esleipendunari lagundu edo aholkularitza-lanik egin eskaintza prestatzean.

- Enpresa esleipendunaren betebeharra da kontratuaren objektuarekin zerikusia duten eta kontratuaren haritik ezagutu ditzakeen publikoak edo agerikoak ez diren datu eta aurrekariak isilpekotasunez zaintzea. Beraz, ezingo die hirugarren batzuei kontratuaren objektu den gaiei buruzko informaziorik eman, betiere Administrazioaren berariazko baimenik ez badute.

- Hautaketa-prozesuan laguntzen ari den bitartean, besteak beste, zeregin hauek egingo ditu:
  - Lehiaketan zehar lizitatzaileei sor dakizkiekeen zalantzak argitzea.
  - Udal Elkarteari laguntzea obra gauzatzeko eskaintzak hautatzeko prozesuan; horretarako, kontratazio-mahaiak ezartzen dituen epeetan.
  - Kontratazio-mahaiak eskatzen dizkion txosten teknikoak egitea.
  - Lan-bileretara eta/edo kontratazio-organoarekin egiten diren bileretara joatea.

- Egitasmoa oso-osorik ezagutzea.

- Zuinketa egiaztatzeko akta egiten lagundu eta sinatu, eta kontratu hau esleitu eta lanak egiten hasi arteko aurrelanetan lagundu.

- Geosintetikoen entseguak egiteko kontratistak proposatzen duen laborategia onartu.

- Kontratistak proposatzen dituen geosintetikoak onartu.

- Obrako plana onartu edo egokitu, kontratista esleipendunarekin eta Udal Elkarteko zerbitzu teknikoekin batera.

- Hondakinak kudeatzeko plana onartu.

- Kontratazio-liburua obran dagoela egiaztatu.
- Agindu-liburua eskatu eta obran eduki.
- Obran segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaile bat dagoela egiaztatu.
- Egin beharreko kontrolak programatu. Kontrol geometriko, kualitatibo eta kuantitatiboa egingo da, obrako planaren arabera. Bertan adieraziko da obra-unitate guztiak eta beren materialak kontrolatzeko sistema eta prozedura. Sistema eta prozedura horiek Udal Elkarteari aurkeztuko zaizkio, gainbegiratzeko eta, horrela baldin badagokio, onartzeko.

8.2 Lanak egiten ari direla burutu beharreko lanak

OBRA-ZUZENDARITZA FAKULTATIBOAK honako betebeharrak izango ditu:

- Bermatu lanak burutuko direla onartutako egitasmoak eta AAI/IBIko **D.1 atalean** ezarritakoaren arabera. Besteak beste, AAI/IBIk ezartzen dituen eskakizunak betetzen direla justifikatzeko, beharrezkoa izango da justifikazio-kalkuluak berriz egitea, obran erabili diren materialak kontuan hartuz.
- Uneoro lanak kontrolatu eta zuzendu, lanen kalitatea bermatzeko. Lanak egiteko kontratistarekin lanak koordinatu. Aldizkako bisitak **astean hiru aldiz** egingo dira **gutxienez**, eta zuzendari teknikoak **astean behin** joan beharko du **gutxienez**, eta, nolanahi ere, presentzia etengabea izango da fase kritikoetan (adibidez, iragazgaiztearen gainean estaldura-geruzako lurrak isurtzean), esleipendunak kontratuaren esku jarri behar dituen koordinazio eta jarraipeneko beste langile batzuen presentzia fisikoari kalterik egin gabe. Esleipendunak bileren eta bisiten aktak egingo ditu, erabakitakoak jasotzeko. Aktak horiek obraren dokumentazioarekin batera gordeko dira.
- Hondakinak kudeatzeko plana betetzen dela gainbegiratzea eta haren jarraipena egitea.
- Asteko egun eta ordu zehatz bat jarriko da obrara bisitak egiteko, bestelako bisita osagarriak egiteari kalterik egin gabe. Bisita horietan kontratazio organoaren deialdia jasotzen duten Udal Elkarteko ordezkari interesdunek parte hartu ahal izango dute.
- Egitasmoaren Urola Kostako Udal Elkarteko zuzendaritza teknikoak (edo eskumena duten organoek) deitzen dituen bilera eta lan-saioetan parte hartu eta bilera horietarako behar diren dokumentuak prestatu.
- Obra-zuzendaritza fakultatiboak idatzi eta egingo ditu obrako bisiten eta obra burutzeko lan-bileren aktak; halaber, aginduen liburua beteko du. Aktak Udal Elkarteari bidaliko zaizkio, bilera egin eta gehienez ere 3 eguneko epean.
- Aginduen liburuaz gain, gorabeheren liburu bat ere egingo du, obraren edozein alderditan egunero gertatzen diren gorabehera nabarmenenak jasotzeko.
- Lanak onartutako egitasmoaren arabera edo kontratazio organoak behar bezala onartutako aldaketen arabera burutzen direla bermatu. Zigilatze-lanak egin bitartean zigilatze-egitasmoan aldaketarik eginez gero eta aldaketa nabarmenak eragiten baditu, ingurumen-organoari jakinarazi beharko zaio, gauzatu aurretik onar dezan.
- Kontratistaren giza baliabideek, baliabide materialek, kontrol neurriek eta prozedurek egitasmoko edo kontratuko eskakizunen kalitatea bermatzen dutela egiaztatu.
- Lanen programa eta, beraz, lanak burutzeko epeak betetzen direla egiaztatu; lanak hasteko, garatzeko edo amaitzeko epeetan gerta litezkeen atzerapenei buruzko justifikazioak idatzi.
- Obra-zuzendaritza teknikoari hainbat baldintza tekniko zehaztu eta proposatu, preskripzio teknikoen agiriek obra-zuzendaritzaren irizpideen arabera zehazteko uzten dituztenak, hain juxtu.

- Zuzendaritza teknikoarentzako hileko txostenak idatzi, lanen egoerari eta bilakaera ekonomikoari buruz. Halaber, zuzendaritza teknikoak lanei buruz eskatutako bestelako txostenak idatzi (gorabeherak, aldaketak, prezioak eta abar).

- Obraren prozesuaren argazkiak egin, bereziki ezkutuan geratuko diren zatietakoak. Argazki horiek identifikatu egingo dira (data eta gaia) eta hileroko txostenari erantsiko zaizkio.

- Hileroko ziurtagiriak egin eta alderaketa egin hilero, esleipenean aurreikusitakoaren eta benetan burututakoaren artean. Ziurtagiriak egingo dira gehienez ere hilabete 1eko epean, obraren kontratistak helarazten dionetik hasita.

- Lanak egitea eta lanekin okupatzen diren ondasunak direla eta behar diren baimenak (erakunde ofizialenak nahiz partikularrenak) lortzeko ekintzak proposatu, eta baimen horien haritik sortutako gorabehera eta zerbitzuak bideratu.

- Etengabeko kontrola, lanak gauzatzeak ez dezan oztopatu zabortegiaren kudeaketari dagozkion lanak normaltasunez egitea, eta obren eta zabortegiaren arteko koordinazioa gainbegiratu eta zuzendu (hondakinak sailkatzeko instalazioa, mantentze-lanak eta datuak hartzea). Horri dagokionez, eta Udal Elkartearen jarraibideen arabera, lanak egiteko fase bakoitzean bi jarduerak koordinatzeko plana behar bezala gauzatzeko ardura izango du, eta zabortegiko ohiko jarduerak martxan jarraitu behar du une oro, erabiltzaileen segurtasuna murriztu gabe.

- Obren kalitate orokorra kontrolatzeko plana gainbegiratu eta jarraipena egin (besteak beste, kalitatea kontrolatzeko liburua prestatu eta obren amaieran kalitatea kontrolatzeko ziurtagiria egin).

- Esplizituki aipatu behar da obra-zuzendaritzak zigilatze-obren gainean egin beharreko kalitate-kontrolaren inguruan duen erantzukizuna (geosintetikoen kalitatea kontrolatzea).

- Bereziki, ingurumenarekin zerikusia duten gorabeherak bideratu eta eragina jasaten duten beste pertsonen eskariei erantzun.

- Kontratua dagoenean betetzea galarazten duten edo kontratua aldatzea eskatzen duten gertakari eta gorabeherak aztertu, eta Administrazioari irtenbide alternatiboak aurkeztu.

- Lanak burutzen ari direla egitasmoan egin beharreko doikuntzen dokumentazioa idatzi (egin behar badira). Kontratuaren barruan sartzen da egitasmoan edo bestelako dokumentu teknikoetan beharrezko gertatzen diren aldaketak egitea. Aldaketa horiek izan litezke Udal Elkartearen jarraibideen ondorio edo beste administrazio batzuen aurrean baimenak izapidetzearen ondorio. Erabakitzen diren irtenbideak esleipendunak defendatuko ditu, Udal Elkartearekin batera, dagokion organo eskumendunaren aurrean.

- Egitasmoak hutsuneak dituelako edo zerbait aurreikusi ez duelako desbideratze ekonomikoak gertatzen badira, eta desbideratze horiek egitasmoa aldatzeko izapideari ekitea baldin badakarte, esleipendunak idatziko du aldaketa oso-osorik, esleipenaren diru-sarian inolako igoerarik egin gabe.

- Aldaketaren baten gainean ingurumen-organoari kontsulta egin behar bazaio, zuzendaritza fakultatiboak dokumentuak prestatuko ditu eta aholkularitza emango dio Udal Elkarteari.

- Laborategiek (UNE-EN-ISO/IEC 17025 arauaren argitara ziurtatuak) egiten dituzten kontrolak aztertu (lanak egiteko epean nahiz berme epean) eta egiaztatu kontratistak betetzen dituela AAI/IBIk ezartzen dituen betekizunak, lanak burutzeari dagozkion betekizunak nahiz ingurumen baimen integratuan ezartzen diren emisioen muga-balioen betekizunak.

- Zabortegiaren azalera osoaren plano takimetriko bat egitea, UTM-ETRS 80 koordenatuetan, obra amaitu ondoren, zigilatutako azalera definituta, zeinak birmoldaketaren ondoren gutxienez 1 m-ko azalera gehigarria izango duen zabortegiak okupatutako azalerarekiko. Plano takimetriko horretan, zigilatze-lanetan aurki daitezkeen lixibatuen iturburuak kokatuko dira, eta horietako

bakoitzean honako hauek adieraziko dira: emaria, pH-a, tenperatura, eroankortasun elektrikoa eta neurketa-data.

Obra egiten den bitartean hutsuneak edo zerbait aurreikusi ez duelako desbideratze ekonomikoak gertatzen badira, eta desbideratze horiek egitasmoa aldatzeko izapideari ekitea baldin badakarte, esleipendunak idatziko du aldaketa oso-osorik, esleipenaren diru-sarian inolako igoerarik egin gabe.

8.3 Obra hartu eta likidazioa egiteko lanak

O**BRA-ZUZENDARITZA FAKULTATIBOAK** honako betebeharrak izango ditu:

- Obra hartzeko egintzara bertaratu eta hura sinatzea, eta obra hartu aurreko txostena idatzi.

  Obra hartzeko egintzan, 9/2017 Legearen 210. artikuluan ezarritako ondorioetarako, honako hauek bilduko dira: kontratuaren arduraduna, baldin eta izendatu bada, edo administrazioak izendatutako fakultatibo bat, haren ordezkaria, obra-zuzendaritzaz arduratuko den teknikaria, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria, hala badagokio, eta enpresa kontratista, egoki baderitzo, haren fakultatiboaren laguntzarekin.

  Horretarako, enpresa kontratistak edo haren ordezkaritzak idatziz jakinaraziko dio obra-zuzendaritza fakultatiboari obra amaitzeko aurreikusitako eguna, gutxienez berrogeita bost egun baliodun lehenago.

  Obra hartzeko egintza jakinarazpena idatzi ondoren egingo da, eta gehienez ere dagokion agiriaren karatulan jasotako epearen barruan.

  Obra hartzeko egintzaren akta egingo da, eta egintzan parte hartzen duten pertsona guztiek sinatuko dute. Akta horretan, obra egoera onean eta aurreikusitako aginduen arabera egin den jasoko da. Kasu horretan, administrazioak izendatutako pertsonak hartutzat joko du, eta orduan hasiko da berme-epea.

  Bestela, hala jasoko da aktan, eta obra-zuzendaritza fakultatiboak antzemandako akatsak adierazi eta beharrezkoak diren jarraibideak emango ditu. Horrez gain, epe bat finkatuko du antzemandako akatsak konpontzeko. Konpondu ezean, beste epe bat eman ahal izango da edo kontratua suntsiarazi.

  Administrazioak obra partzialki jaso ahal izango du, baldin eta agiri honen karatulan ezarri bada partzialki betetzeko epeak daudela; hala bada, konturako ziurtagiria egin beharko da.

  Behar bezala arrazoitutako interes publikoko salbuespenezko arrazoiak direla-eta, kontratazio-organoak erabakitzen badu obra benetan okupatzea edo erabilera edo zerbitzu publikorako abian jartzea, nahiz eta hartzeko egintza formala ez bete, inguruabar horiek gertatzen direnetik sortuko dira obra hartzeko egintzaren berezko ondorioak, eta obra egiaztatzeko akta egin beharko da.

- 9/2017 Legearen 243. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratazio-organoak 3 hilabeteko epea izango du gauzatutako obraren azken ziurtagiria onartzeko, harrera egiten den egunetik zenbatzen hasita, eta kontratistari ordainduko dio, kontratuaren likidazioaren kontura, 9/2017 Legearen 198. artikuluan aurreikusitako epean.

  Ondorio horietarako, obra jaso ondoren, neurketa orokorra egingo da, kontratista bertan dela, eta obra-zuzendaritza fakultatiboak, obra hartzen denetik gehienez ere hilabeteko epean, egitasmoaren arabera benetan gauzatutakoak neurtuko ditu. Horretarako, obra hartzeko aktan ezarriko da neurketa hori hasteko eguna, eta kontratistari jakinaraziko zaio.

  Kontratistak nahitaez joan behar du obra-zuzendariak egingo duen neurketa orokorrera eta datuak hartzera.

  Neurketa orokorrak egiteko, datu osagarri gisa honako hauek erabiliko dira: zuinketa egiaztatzea; zuinketa partzialak eta obra gauzatzen hasi zenetik egindako neurketak; gorabeheren liburua, halakorik balego; aginduen liburua, eta obra-zuzendariak eta kontratistak beharrezkotzat jotzen dituzten beste guztiak.

Egintza horren akta egingo da, hiru aletan, eta obra-zuzendariak eta kontratistak sinatuko dituzte; sinatzaile bakoitzak ale bana jasoko du, eta hirugarrena kontratazio-organoari emango dio obra-zuzendariak. Kontratista ez bada neurketara joan, obra-zuzendariak bidaliko dio aktaren alea.

Neurketaren emaitza kontratistari jakinaraziko zaio, bost egun balioduneko epean adostasuna adieraz dezan edo egokitzat jotzen dituen eragozpenak aurkez ditzan.

Neurketa orokorraren emaitzaren aurka kontratistak egokitzat jotzen dituen erreklamazioak idatziz bidaliko dizkio kontratazio-organoari, bost egun balioduneko epean, obra-zuzendariaren bidez, eta hark hamar egun balioduneko epean helaraziko dizkio organo horri, txostenarekin batera.

Neurketa orokorraren emaitzan oinarrituta eta 1. paragrafoan ezarritako epearen barruan, obra-zuzendariak zerrenda baloratua idatziko du.

1. apartatuan ezarritako epea amaitu eta hurrengo hamar egunen barruan, obra-zuzendariak dagokion azken ziurtagiria egin eta izapidetuko du.

- AAI/IBIk ezartzen duenaren arabera, obrak amaitutakoan esleipendunak egiaztatu beharko du obrak egin direla AII/IBIk jartzen dituen betekizun eta baldintzen arabera eta obraren oinarri den dokumentazio teknikoak ezarritakoaren argitara. Hori egiaztatzeko obra-zuzendariak obra amaierako ziurtagiria egin eta sinatuko du. Ziurtagiriari honako dokumentuak erantsiko zaizkio:

    - Dagokion eraikuntza-egitasmoa (“as built”), dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia, eta horrekin batera honako hauek: planoak; lanen fasean egin daitezkeen aldaketek ebazpenean eta ebazpenaren oinarri den dokumentazioan ezarritako baldintza eta betekizunei dagokienez segurtasuna murrizten ez dutelako justifikazioa; obra amaitzean ezkutuan geratuko diren elementuen eta haien argazki-erreportajea; xehetasun-bista(planoaren gainean duten kokapena adierazita); eta ikuspegi panoramiko orokorrak.

    - Plano topografikoa (koordenatu absolutuak UTM-ETRS98 eta kota absolutuak), iragazgaizteko sekuentziaren gainazaleko geomintzarena.

    - Eraikuntzaren Kalitatea Kontrolatzeko eta Bermatzeko Programa. Bertan, egindako lanak deskribatzen dituen memoria jasoko da, eta honako hauek jasoko ditu: emaitzen eta ondorioan laburpen-taulak; landa eta laborategiko emaitza analitiko guztiak jasotzen dituzten eranskinak (azken horien txosten osoak sartuko dira); eta laginketa-puntuen kokapena plano takimetrikoan.

- Obra amaierako ziurtagiria, kalitatea kontrolatzeko ziurtagiria, hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena eta horrekin batera doan obraren jarraipenari eta kalitate-kontrolari buruzko dokumentazioa ingurumen-organoari aurkeztu behar zaizkio, onar ditzan. Aurkeztutako dokumentazioa egokia dela egiaztatu eta dagokion egiaztapen-bisita egin ondoren, ingurumen-organoak isurketa-jarduera etetea, zigilatzea amaitzea eta itxiera osteko hasiera onartuko ditu.

- Behin betiko zigilatzea mantentzeko plana idatzi.

- Berme-epea amaitu aurreko hamabost egunen epearen barruan zuzendaritza fakultatiboak txostena egingo du obraren egoerari buruz, ofizioz nahiz kontratistaren eskariz. Aldekoa bada, kontratistak ez du inolako erantzukizunik izango, 9/2017 Legearen 244. artikuluan jasotako ezkutuko akatsengatiko erantzukizuna eta bizigarritasun-akatsengatiko erantzukizuna izan ezik. Bermea itzuli eta ezereztuko da, kontratua likidatuko da, eta, hala badagokio, ordaindu gabe dauden betebeharrak ordainduko dira hirurogei eguneko epean.

  Txostena aurkakoa baldin bada eta atzemandako akatsak obra behar bezala ez egitearen ondorio baldin badira (eta ez berme-aldian lanek izandako erabilpen arruntaren ondorio), zuzendaritza fakultatiboak behar diren jarraibideak emango dizkio kontratistari, akatsak konpontzeko. Hori egiteko epe jakin bat emango dio, epe horretan kontratistak obren zaintzaile

izaten jarraituko du, eta ez du eskubiderik izango inolako ordainik jasotzeko berme-aldia luzatzeagatik.

Obra-zuzendaritza fakultatiboak likidazioa egingo du, eta likidazioaren emaitzari kontratuaren prezioak eta baldintza ekonomikoak aplikatuko dizkio, enpresa kontratistari jakinarazi ondoren. Kontratazio-organoak hirurogei eguneko epean onartu eta ordaindu beharko du likidazioa. Likidazio-saldoaren ordainketa berandutzen bada, enpresa kontratistak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango du, merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako moduan.

- Oro har, obra-zuzendaritza fakultatiboari dagozkion betebehar guztiak.

9. INGURUMEN ZAINTZARAKO LANEN IRISMENA

Ingurumen zaintzarako zerbitzua egitasmoaren, zabortegiko AAI/IBIren eta onartutako agirien arabera gauzatu beharko da.

9.1 Obra hasi aurretik egin beharreko lanak

- Eraginpeko eremuaren "aurreko egoera" finkatuko da. Aurreko egoeraren deskribapena (atmosferaren kalitatea, zarata, azaleko urak, lurrazpiko urak, bisibilitatea eta paisaia, landarediaren kalitatea eta abar) jasoko da "Hasierako egoeraren txostena" izeneko agirian.

- Ingurumena Zaintzeko Planak (aurrerantzean, IZP) eraikitzeko egitasmoaren ingurumen prozesuen jarraipena egin behar du lanak egiten diren fasean, eta aurreikusi gabeko bigarren mailako ondorioak atzeman eta irtenbideak eman behar ditu, eraikitzeko fasearen inpaktua ahalik eta txikiena izateko.

- Egutegi bat ezarriko da, obra egiten den epearen barruan kontrolak noiz egingo diren zehazteko.

- Egitasmoaren zuzendaritza teknikoak deitutako lan-bilera eta lan-saioetara IZPren laguntza teknikoa ematen duen enpresaren kide bat edo batzuk bertaratuko dira.

- Jarduteko eremua mugatu egingo da, lanak hasi aurretik eta lurrak mugitzeko lanak egin aurretik.

- Enpresa esleipendunak, gutxienez, "Lanak hasi aurreko txostena" aurkeztuko du, eta txosten hori izapidetuko du eskaintzan zehaztutako faseen argitara. Txosten hori Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Organoari bidaliko zaio eta edukia eta ondorioak ziurtatuta izango ditu.

9.2 Obra egiten den bitartean burutu beharreko lanak

Egitasmoaren zuzendaritza teknikoak (edo eskumena duten organoek) deitzen dituen bilera eta lan-saioetan parte hartu eta bilera horietarako behar diren dokumentuak prestatu. Gutxienez bisita bat egingo da astean.

Ez da ingurumen zaintzarako zerbitzuaren eginkizuna obra egiten denean nahiz berme epean hartu beharreko laginak hartu eta azterketa analitikoak egitea, izan ere, lan horiek obraren aurrekontuan daude sartuta.

Lanen jarraipena

Obra egiten den bitartean beharrezkoa da bereziki kontrolatzea lanak erarik egokienean burutuko direla, eta lanak egoki bideratzen direla bermatutakoan, ingurumen faktore hauskorrenei jarraipena egin behar zaie.

Obrako jarduerez gain, egiaztatu behar da neurri eta ekintza zuzentzaileak era egokian burutzen direla.

Obra egin eta instalazioak eraikitzeko aldi horretan ingurumenari eragindako eta aurreikusi gabeko inpaktuak atzematen badira, kontrol eta zaintzako lantaldeak neurriak proposatu behar ditu, inpaktu horiek saihestu edo zuzentzeko.

Obra egiten den epean obrarako sarbide mugatuko zaie langileei, ibilgailuei eta materialei.

Zainduko da obra-instalazioak, pilaketa, garbigunea, ibilgailuak eta makinak aurreikusitako lekuetan daudela, eta okupatutako azalera ahalik eta txikiena dela.

Airearen kalitatearen kontrola Emisioak

Lanak egiten diren epean tximinietako gasen emisioak kontrolatzeko kanpaina bat egingo da, egitasmoaren IZPren arabera. Ingurumen zaintzarako zerbitzuaren egitekoa izango da kontrol horiek gainbegiratzea, emaitzak aztertzea eta ingurumen zaintzarako planean txertatzea.

Bereziki zainduko da atmosfera leherkorrik ez gertatzea.

Isuritako uraren kalitatearen kontrola

Obra egiten den bitartean azaleko uren lau (4) kontrol analitiko egingo dira, lurpeko uren bost (5) kontrol eta, IZPren barruan, ustiapen-fasean egiten diren lixibatuenak.

Zarataren kontrola

Obra egiten den bitartean langileek lanean eta ingurunean jasaten dituzten zarata-mailak kontrolatuko dira. Ingurumen zaintzarako zerbitzuaren egitekoa izango da kontrol horiek gainbegiratzea, emaitzak aztertzea eta ingurumen zaintzarako planean txertatzea.

Ezponden eta higaduraren kontrola

Astero ikuskatuko dira, batez ere euri askoko urte sasoietan, kokapena dela eta higadura jasan dezaketen ezponda, eusteko dike eta material eta landare lurrarekin egindako pilak.

Arreta bereziarekin honakoak aztertuko dira: materialekin egindako piletan eta isurtzeko aurrealdea ixteko dikeetan sortu eta ugaritutako ubideak, ezponden oinarrietan sortutako material pilaketak (higaduraren eraginez sortutakoak) eta azalean drainatzeko sortutako sare berriak.

Eremu horietan higaduraren eragina murrizteko ezarritako neurrien eraginkortasuna ebaluatu egingo da eta neurri horiek areagotu edo beste batzuk ezarriko dira aurreko neurri horiek erabat eraginkorrak izan ez badira.

Azterketa horietako bakoitza akta batean jasoko da, nahiz eta gorabeherak zaintzarako plana izeneko dokumentuan jaso.

Drainatzeko lanen kontrola

Drainatzeko lanen (edo zaintzeko areken) mantentze-lanak behar bezala egingo dira, une oro lohirik eta landarerik gabe egon daitezen eta isurketetatik jasotako ura husteko oztoporik edo ur bildurik izan ez dadin.

Azterketa horietako bakoitza akta banatan jasoko da.

Hondakinen kudeaketaren kontrola

Obran sortzen diren hondakin arriskutsuak nahiz ez arriskutsuak jasotzera bertaratzen diren baimendutako kudeatzaileen egiaztagirien erregistroa behar bezala egingo da. Datak eta frogagiriak zaintzarako plana izeneko dokumentuan jasoko dira.

Ikuskatu eta kontrolatu egingo da hondakin arriskutsuak itxita eta behar bezala biltegiratzen direla, baimendutako kudeatzaileak jaso arte.

Topografia eta asentuak

Topografia eguneratuko da (IZPren argitara) eta zabortegiko zedarri eta inklinometroen neurketak egingo dira.

Txostenak egitea

Enpresa esleipendunak, gutxienez, "Lanak hasi aurreko txostena" eta "Amaierako txostena" aurkeztuko ditu, eta txosten horiek izapidetuko ditu eskaintzan zehaztutako faseen argitara. Horrez gain, ohiko txostenak egingo ditu, ezarritako maiztasunarekin.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Organoari bidaliko zaizkion txostenek edukia eta ondorioak ziurtatuta izango dituzte.

Halaber, enpresa esleipendunak txosten berezia egin beharko du ingurumenari aurreikusi gabeko eta ondorio kaltegarriko inpakturen bat egin dakiokeela atzematen bada, eta saihesteko edo zuzentzeko ekintzaren bat burutu behar bada (txosten horrek behar den informazio guztia bilduko du). Horrez gain, txosten bereziak egin ahal izango dira obraren alderdiren batek aurreikusi baino ondorio nabariagoak edo onartezinak sortarazten baditu.

9.3 Obra hartu eta horien likidazioa egiteko lanak

INGURUMEN ZAINKETARI dagokionez, kontratistak honako betebeharrak izango ditu:

- Amaierako txostena idatzi. Txosten hori Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Organoari helaraziko zaio. Txostenak edukia eta ondorioak egiaztatu egingo ditu eta zabortegiaren AAI/IBIk eskakizun dituen atal eta alderdi guztiak barneratuko ditu.

10. GEOSINTETIKOEN INSTALAZIOAREN KALITATEA KONTROLATZEKO ETA BERMATZEKO LANEN IRISMENA

10.1 Obra hasi aurretik egin beharreko lanak

Obra hasi aurretik GEOSINTETIKOEN INSTALAZIOAREN KALITATEA KONTROLATU ETA BERMATZEKO zerbitzuari dagokionez, honako betebeharrak izango ditu:

- Geosintetikoen entseguak egiteko kontratistak proposatzen duen laborategia onartu.
- Kontratistak proposatzen dituen geosintetikoak onartu.
- Udal Elkarteak antolatzen dituen aurretiazko bileretan parte hartu.
- Egitasmoa aztertu eta xehetasunez ezagutu.
- Obraren kontratista orokorraren dokumentazioa gainbegiratu eta aztertu, besteak beste instalatzaileari eta materialen fabrikatzaileari buruzkoa.

10.2 Obra egiten den bitartean burutu beharreko lanak

Obra egiten den bitartean GEOSINTETIKOEN INSTALAZIOAREN KALITATEA KONTROLATZEKO ETA BERMATZEKO zerbitzuari dagokionez, egitasmoak geosintetikoen kalitatea kontrolatzeko planean zehazten dituenez gain, honako betebeharrak izango ditu:

- Udal Elkarteari aholkularitza eskaini iragazgaizteko lanen arloan.
- Udal Elkarteak (edo eskumena duten organoek) deitzen dituzten bileratan parte hartu eta bilera horietarako behar diren dokumentuak prestatu.
- Materialak obran hartu. Obran hartutako materialen erreferentzia eta etiketatze normalizatua, “UNE-EN-ISO 10320” arauaren argitara. Geomintzak eta geomintzekin lotutako produktuak. In situ identifikatu. Kalitatea kontrolatzeko ziurtagiriak: geomintzen kasuan, erroilu bakoitzeko eta gainerakoen kasuan fabrikazio lote bakoitzeko.
- Materialen jatorrien ziurtagiriak ontzat ematea. Geosintetikoen fabrikazioaren kalitatearen kontrola eta bermea onartzea.
- Obran pilatutako materialen kontrola.
- Zigilatzeko materialak (bentonitazko xafla, geomintzak, etab.) ontzat jotzeko probak egiteko laginak hartu.
- Geosintetikoen azaleraren oinarria onartzea. Iragazgaizteko lanak egiten hasi aurretik egiaztatu eta ontzat jo behar dira geosintetikoak jartzeko oinarria eta ainguratzeko zangak egitasmoarekin bat etorriz egin izana. Azaleraren oinarria ontzat jotzen dela adierazten duen ziurtagiria egin.

- Zigilatzeko paketea osatzen duten materialei (entseguei nahiz laginak hartzeko prozedurei) oniritzia eman, "UNE 104.425 material sintetikoak" arauaren jarraibideen argitara. Obran jarri. Hondakinen zabortegietako iragazgaizte sistemak, PEAD laminekin eta "UNE 13493 Barrera geosintetikoak" arauaren argitara. Sistema horien erabilpena biltegiratzeko lanen eraikuntzan eta hondakin solidoen zabortegietan. Instalazioaren hasiera.

- Zigilatzeko paketea osatzen duten materialen ebaki zuzeneko entseguak onartu, geruzen arteko kontaktu bakoitzeko, DIN-EN-ISO 12957-1 arauaren argitara.

- Geosintetikoen instalazioari jarraipena egitea. Entseguak eta kanpoko probak kontrolatu eta onartu. Instalazioa begiz ikuskatu: uneoro egin behar da, obren erritmoaren arabera. Zerbitzu honen esleipendunak lanen eremuan bertan egon behar du geosintetikoak jartzen diren lan guztietan. Esleipendunak obran egon behar du geosintetikoak jartzeko lanen denboraren %100.

- Kanpoko entsegu suntsitzaileak eta ez suntsitzaileak egin. Geosintetikoen instalazioaren kontrolerako behar diren aparailuak obran egongo dira geosintetikoen instalazioa kontrolatzeko zerbitzuak irauten duen epe osoan (%100). Aparailu horiek obran egotea sartuta dago zerbitzuaren prezioan eta, beraz, ez dira bereiz fakturatuko.

- Kapa edo geruza bakoitza onartu, banan-banan eta bereiztuta.

- Geosintetikoak jartzeko hurrenkera, norabidea eta modua gainbegiratu eta onartu.

- Argazkiak egin egunero (egiten diren lanen eta kritikotzat jotzen diren eremuen argazkiak).

- Txostena idatzi egunero, informazio honekin: egindako lanak, gorabeherak, instalatutako materialen kopurua eta/edo burututako obra-unitateak.

- Instalazioaren aldaerak eta/edo hobekuntzak proposatu.

- Zigilatzeko sistema, zangak ainguratzeko sistema eta aldi bateko ainguraketak onartzeko bilerak egitea. Kalitatea kontrolatzeko planaren gorabeherak berrikustea, eta aldaera edo hobekuntzak proposatzea (beharrezkoa bada). Obra-zuzendaritzak eta/edo Udal Elkarteak ontzat jotzea.

- Geosintetikoen kontrolerako hasierako txostena idatzi. Txosten horrek kontratista orokorrarengandik eta instalatzailearengandik jasotako honako informazioa jasoko du:
- Lehengaiei buruz:
  - Ekoizlearen datuak (izena, helbidea...).
  - Lehengaiaren ekoizpenaren jatorria eta data. Erantsiko dira lehengaien hornitzailearen kalitatea kontrolatzeko ziurtagirien kopiak.
  - Lehengaien kalitatea kontrolatzeko ziurtagirien kopiak (institutu kontrolatzaile independente batek egina). Kontrolatzaile independente horrekin egindako kontratua.
  - Erabilitako materialen ehunekoei buruzko adierazpena (material landugabeak nahiz birziklatuak).
- Materialei buruz:
  - Ekoizlearen datuak (izena, helbidea...).
  - Fabrikatzailearen entseguen ziurtagirien kopiak, egitasmoak eskatzen dituen ezaugarriak betetzen direla bermatzen dutenak.
  - Fabrikatzailearen ziurtagiria, adierazten duena ezaugarri bereizle gisa zehaztutako balio minimo eta ertainak bermatzen dituela.
  - Fabrikatzailearen kalitate kontroleko ziurtagiria, adierazten dituena kontrolatutako parametroak, aplikatutako arauak eta kontrolaren maiztasuna.
  - Materialen kalitatea kontrolatzeko ziurtagirien kopiak, institutu independente batek eginak.
  - Materiala birziklatua baldin bada, birziklatutako materialen ehunekoen adierazpena, ekoizpen eguneko edo ekoizpen loteko.
- Material guztiei buruz:

  - Geosintetikoen hornitzaileak aurkeztu behar du zigilatzeko geruzen arteko marruskadura angelu ezberdinen zerrenda, egitasmoari egokituta (ebaki zuzeneko entsegua), hau da, jarritako materialak, jartzeko daudenak eta abar.
  - Kalitatea kontrolatzeko erakunde independenteak aztertu beharko ditu zigilatzeko ezartzen diren geosintetikoen estabilitatea, hornitzaileak emandako informazioa baliatuta.
- Baliabide tekniko eta materialei buruz:
  - Obran erabiliko diren entseguetarako makina eta tresnen fitxa teknikoak eta kalibrazio ziurtagiriak (konprobatzeko kanala duten soldadura makina, estrusioko soldadura makina, kanpoko tentsiometroa, mikrometroa, manometroak, termohigrometroa...).
  - Ziurtagiria, adierazten duena estrusioetan erabiliko den erretxina dela jarriko diren geomembranek duten erretxinaren mota berekoa.
  - Instalatzeko metodologia.
  - Instalatuko diren geosintetikoen panelak nola jarriko diren zehazten duen planoa, (erantsiko dira xehetasunak, aldaketa proposamenak...).
  - Obra plangintza.
  - Jasotako informazioa egitasmoarekin alderatuko da.

- Materialen guztien adostasun testei eta entseguei buruzko txostena idatzi. Honako informazioa jasoko du txosten horrek:
  - Materialen portaerari buruzko adostasun testen eta entseguen emaitzak (laborategia eta proben eremua). Horren helburua da hautatutako materialen benetako portaera ezagutzea, obran jartzeko erabiliko den metodologia berbera erabilita.
  - Ondorioak.

10.3 Obra hartu eta horien likidazioa egiteko lanak

Obra hartu eta horiek likidazioa egiteko, GEOSINTETIKOEN INSTALAZIOAREN KALITATEA KONTROLATZEKO ETA BERMATZEKO zerbitzuari dagokionez, honako betebeharrak izango ditu:

- Kalitatea kontrolatzeko planaren bilakaera eta gauzatzea deskribatzen duen txostena egitea. Emaitzak adieraziko dira memoria batean, eduki honekin: egindako lanen deskribapena, emaitza eta ondorioak laburbiltzeko taulak eta, eranskin gisa, kanpoan nahiz laborategian egindako azterketa analitiko guztien emaitzak.

- Azken txostena eta iragazgaiztearen kalitatea kontrolatzeko ziurtagiria ematea. Txosten horrek honako informazioa eskainiko du gutxienez:
  - Egitasmoan eta kalitatea kontrolatzeko lanetan jardundako atalak eta langileak.
  - Kalitatea kontrolatzeko lanen objektua.
  - Egitasmoaren laburpena eta definizio orokorra.
  - Kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko metodoak.
  - Egiaztatze ziurtagiriak, alde guztiek onartu eta sinatuak.
  - Entseguen emaitzak, geosintetikoen kalitatea bermatzeko laborategiko egitasmo arduradunak ziurtatu eta sinatuta.
  - Geosintetikoen panelen behin betiko ezarpenaren planoa.
  - Egikaritze ziurtagiriak (tarteko epeenak nahiz amaierakoa), alde guztiek onartu eta sinatuta.
  - Instalazioan izandako gorabeherak.
  - Argazkiak, eranskinak, egunero bildutako datuak, laginak, panelak identifikatzeko taulak, panelen eta errolilуen harremana, entseguen emaitzak eta abar.

11. ADMINISTRAZIOAK ESLEIPENDUNAREN ESKU JARRIKO DUEN DOKUMENTAZIOA

Kontratua sinatu ondoren, Urola Kostako Udal Elkarteak kontratuaren objektu den kokalekuaren xehetasun-topografia entregatuko dio esleipendunari, bai eta dagoeneko gauzatutako bi zigilatze-faseen ast built-ak eta egitasmoa definitzerakoan kontuan hartu beharreko gainerako dokumentuak ere.

Urola Kostako Udal Elkarteko Ingurumen Sailak Udal Elkartean zerbitzuari buruz duen informazio guztia jarriko du esleipendunaren esku, esleipendunak informazioa bestelako iturrietatik lortzeari kalterik egin gabe. Esleipendunak behar dituen dokumentuen kopiak egiteak eragindako gastuak (gasturik balego) esleipendunak ordainduko ditu.

12. BILERETARA BERTARATU ETA TXOSTEN OSAGARRIAK EGITEA

Kontratatutako zerbitzuan sartuta daude egitasmoa onartzeko ardura duen administrazioak (EAEko Ingurumen Organoa) egitasmoa idazteko lanak zuzendu eta jarraipena egiteko izendatzen dituen teknikariekin egin beharreko bilerak. Bilera horiek egin ahal izango dira esleipenduna egitasmoa idazten ari denean nahiz egitasmoa administrazio arduradunari aurkeztu ondoren.

Era berean, aipatutako organoak edo Udal Elkarteak berak egitasmoa zuzendu ondoren eskatzen dituen txosten osagarriak idaztea ere sartuta egongo da.

Halaber, prezioan sartuta dago beharrezko diren bileretara bertaratzea.

13. ONIRITZIA

Egitasmoa sinatuko du arlo horretan gaitasuna duen teknikariak eta oniritzia emango dio dagokion elkargo profesionalak.

Oniritzia emateko tasak sartuta egongo dira diru-eskaintzan.

14. LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA

Enpresa esleipenduna txertatuko da obraren kontratista orokorrak egindako laneko segurtasun eta osasun planean. Plan hori onartuko da segurtasuna eta osasuna koordinatzeko izendatutako pertsonaren aldeko txostenarekin.

Indarrean dauden lan arloko, gizarte segurantzako eta lan segurtasun eta osasunaren arloko xedapenak bete behar ditu.

Urola Kostako Udal Elkarteak ez du inolako erantzukizunik izango kontratistak betebehar horiek betetzen ez baditu.

15. EPEA

Zuzendaritza fakultatiboaren kontratuaren iraupena honakoa da: hasiko da kontratua esleitzen denean, eta, amaitu, azken txostena egiten denean, betiere lanen berme epea igarota, sinatzen denetik kontatzen hasita, SPKLren 279. artikuluak aurreikusten dituen epeen argitara. Honela zehatz daiteke:

- Egitasmoa idaztea: Behin betiko egitasmo ikus-onetsia aurkezteko epea ZORTZI hilekoa izango da. Kronograma batean zehaztu beharko dira behin betiko entregatu aurreko faseak, hala nola dagoen informazioaren analisia, egitasmoaren zirriborroa, Eusko Jaurlaritzako teknikariekin bilera, behin-behineko egitasmoa idaztea, etab.
- Obra-zuzendaritza, geosintetikoen instalazioaren kalitatearen kontrola eta bermea eta ingurumen zaintza: Obraren iraupenaren araberakoa izango da, baina gutxi gorabehera 15 hilabete iraungo duela zenbatetsi da.

BISITAK ZABORTEGIRA: Udal Elkarteak egun bat zehaztuko du garatuko den egitasmoaren eta obraren eremua ikusteko. Hitzordua zehazteko, deitu 943 890808 telefono-zenbakira. Gogorarazten dugu debekatuta dagoela baimenik gabe zabortegira sartzea.

EGINBIDEA:

Nik neuk egin dut, Urola Kostako Udal Elkarteko behin-behineko idazkari kontu-hartzaileak, agerrarazteko preskripzio teknikoen agiri hauek Udal Elkarteko lehendakariaren 2021eko azaroaren 26ko B 2100076 ebazpenaren bidez onartu direla.